

**HEZIBERRI 2020 ETA EAEko HEZKUNTZA
LEGEAREN ZIRRIBORROA GORPUTZ
HEZKUNTZAN: TESTU JURIDIKOEN
ALDERAKETA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Altube Sarrionandia, Bittor

TUTOREA: Lopez de Sosoaga Lopez de Robles, Alfredo

2022/2023

LABURPENA

Aurrera eraman dudan ikerketa honetan, Heziberri 2020 eta EAeko Hezkuntza Legearen zirriborroaren, Gorputz Hezkuntzari dagozkien atalen inguruko alderaketa bat ageri da. Horretarako, lege bakoitzaren analisi juridiko bat egin dut Von Savigny-ren metodologia interpretatiboa erabiliz eta lege bakoitzaren elementu linguistiko, sistemiko eta funtzionalak aztertuz.

Ateratako emaitzei dagokienez, esan daiteke Gorputz hezkuntzaren helburu pedagogikoan aldaketa nabarmenik ematen ez den arren, helburu pedagogikoak lortzera begira hobekuntzak dakartzala EAeko Hezkuntza Legearen zirriborroak. Hori, oinarrizko jakintza multzoetan ikus daiteke, ikasleen kompetentzia motorrak garatzea ahalbidetuko duen programazio ordenatu bat egiteko aukera baitakarte. Beraz, ondorio nagusietako bat EAeko Hezkuntza Legearen zirriborroak Gorputz Hezkuntzako curriculum aurreko hezkuntza legeak zeuzkan gabezietatik abiatuta idatzi dela izan daiteke.

HITZ GAKOAK: Gorputz hezkuntza, Hezkuntza Legea, kompetentzia motorra, jokaera motorrak, egoera motorra, Akzio Motorren Domeinuak.

RESUMEN

Esta investigación lleva a cabo una comparación de los partes pertenecientes a la Educación Física de la Ley de Educación *Heziberri 2020* y el borrador de la Ley de Educación de la Comunidad Autónoma Vasca. Para ello he realizado un análisis de cada ley utilizando el método interpretativo de Von Savigny, analizando los elementos lingüísticos, sistémicos y funcionales.

En conclusión, podríamos decir que en la finalidad de la Educación Física no podemos contemplar muchos cambios entre ambas. Sin embargo, a la hora de conseguir los objetivos pedagógicos, la nueva Ley hace una propuesta mas adecuada que la anterior. Esta afirmación se puede contemplar en los saberes básicos, que proponen una mejor herramienta de organización para desarrollar las competencias motrices de los alumnos. Por lo tanto, una de las conclusiones que sacamos de esta investigación es, que el borrador de la Ley de Educación de la Comunidad Autónoma Vasca parte de las carencias que se identificaban en la Ley anterior.

PALABRAS CLAVE: Educación Física, Ley de Educación, competencia motriz, conducta motriz, situación motriz, Dominios de Acción Motriz.

AURKIBIDEA

1.SARRERA	4
2.JUSTIFIKAZIOA	5
3.MARKO TEORIKOA	7
3.1. GORPUTZ HEZKUNTZAREN IZAERA	7
3.2 EGOERA MOTORREN SAILKAPENA	7
3.2.1 AKZIO MOTORREN DOMEINUAK.....	8
3.2.2. KANPO LOGIKAREN GARRANTZIA.....	9
3.3. GORPUTZ HEZKUNTZAREN BILAKAERA CURRICULARRA	10
3.3.1. SORRERA ETA HASTAPENENKO LEGEAK.....	10
3.3.3. LOGSE ETA LOEren ALDAKETAK.....	11
3.3.3 LOMCE ETA JOKAERA MOTORRAK.....	11
4.HELBURUAK	14
5.HIPOTESIAK	14
6.METODOLOGIA	15
6.1. ELEMENTU LINGUISTIKOA	15
6.2. ELEMENTU SISTEMIKOA	16
6.3. ELEMENTU FUNTZIONALA	16
7.HEZKUNTZA LEGEEN ANALISIA	17
7.1 ELEMENTU LINGUISTIKOA	17
7.2. ELEMENTU SISTEMIKOA	21
7.2.1. HEZIBERRI 2020.....	21
7.2.2.EAEko HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRRIBORROA.....	25
7.3. ELEMENTU FUNTZIONALA	29
7.3.1 HEZIBERRI 2020.....	29
7.3.2. EAEko HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRRIBORROA.....	31
8.ONDORIOAK	34
9.MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK	38
10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	39

1.SARRERA

Gaur egun bizi dugun eztabaida mediatiko batean jarri nahi dut arreta lan honekin. Albiste ugari berri jasotzen dugu hezkuntza lege berri baten inguruan eta hau onartuko duten data behin eta berriro entzun izan dugu; data baino gehiago dataren atzerapena izan da entzun duguna. Azkenean onartu dute EAEko Hezkuntza Lege berria eta horrekin batera curriculumaren erredakzioan ari dira orain zenbait agintari. Horren aurrean ezjakintasuna da nagusi irakasleen artean, hots, curriculum berri hau praktikan jarriko duten horien artean. Ezjakintasuna, datorren ikasturtean zein curriculumekin egin beharko duten lan edo oposaketetan zein curriculum erabili behar izango duten, EAEko Hezkuntza Lege berriarena edo gaur arte martxan egon den Heziberri 2020-rena.

Gorputz Hezkuntzako minorra ikasten ari naizen honetan praktikaldian ikusitakoa ez da aurreko paragrafoan esandakotik asko aldentzen. Beraz, testuinguruaz baliatuta bi hezkuntza legeen analisi bat egin eta bien arteko konparaketa bat egitea izan da lan honi jarritako helburua.

Gorputz hezkuntza motrizitatea eta mugimendua gauzatzen duen pertsona lantzeko tresna izanik, hau da, pertsona bere osotasunean garatzeko tresna dela jakinda, bai harremanetan, bai emozioetan bai gaitasun fisikoetan eta baita arlo kognitibo edo estrategikoan eta horrekin batera ohitura osasuntsuak sustatzeko eta ongizate fisiko mental eta soziala bilatzeko tresna bat denez, ikasgaiaren edo arloaren beraren izaeraz eta bere sorrera akademikotik gaur egunera arte izan duen bilakaeraz jardungo naiz lanaren lehen zatian.

Ondoren, Von Savigny-ren metodologia erabilita, gaur egun indarrean dauden bi hezkuntza legeen inguruko analisi juridiko bat egingo dut bere elementu linguistiko, sistemiko eta funtzionalak aztertuz. Bertan ateratako ondorioak, hasieran aipatutako hipotesi batzuetatik abiatuz, bi legeen arteko alderaketa bat egiteko baliatuko ditut.

Horrela, Gorputz hezkuntzak lege bakoitzean daukan asmo pedagogikoaren inguruan azterketa bat egingo dut, curriculum bakoitzak helburuak betetzeko jartzen dituen mekanismoekin daukan koherentziak eta inkoherentziak erreparatuz. Azkenik, EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak dakartzan aukera berrien inguruan jardungo naiz, ikerketatik ateratako ondorioetatik abiatuta.

2.JUSTIFIKAZIOA

Gradu Amaierako Lan hau hezkuntza legeen inguruko alderaketa bat egitera aurtengo ikasturtean izandako hezkuntzaren egonkortasunik ezak eraman nau. Horri ikasturteak aurrera egin ahala Practicum III-an ikusitako errealitatea gehitu zaio. Garai arraro bat bizi du hezkuntzak. Izan ere, hezkuntza lege bat indarrean dago Heziberri 2020, hain zuzen LOMCEren baitan idatzia dagoena; eta, jadanik, onartua den LOMLOE legearen baitan idazten ari diren beste hezkuntza lege bat, kasu honetan EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroa Lehen Hezkuntzako maila bakoitietan aplikatzen ari dira.

Testuinguru honetan, irakasleak formakuntza berezi bat jasotzen ari dira curriculum berria eta IKTak uztartzen dituen eta praktikaldian ikusi dudanaren arabera irakasleek beraien lan pertsonalerako orduak, formakuntzarako orduak eta ordu libreak erabili behar izaten dituzte formakuntza honetan eskatzen diren ataza desberdinak egiteko. Beraz, oraindik curriculum berriaren inguruan ezjakintasuna da nagusi irakasleen artean eta harritu egin nauen zerbait da curriculumarekiko horrelako ezjakintasuna izanik curriculum berria martxan jartzeko exigentzia.

Horri, irakasleen artean dagoen hezkuntza lege berriarekiko desatxikimendua eta datorren urteetan zehar hartuko den norabidearen zalantza gehitu behar zaizkio. Hasiara batean legea martxoan zehar zen onartzekoa EAEn eta hilabete eta erdi inguru beranduago onartu da legearen zirriborroa, curriculumaren erredakzioaren faltan. Bestalde, oposaketak hilabeteak dira atzeratzen ari direna lege honen onarpenaren ondorioz eta oposaketak egiteko asmoa daukaten irakasle askoren artean ardura handiagoa garatu du bi curriculumak erabiltzeko aukera egoteak.

Ni azken ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako laugarren mailako Gorputz hezkuntzako minorrean aritu naizenez eta praktikaldia ere arlo honetan egin dudanez, gorputz hezkuntzako curriculumean oinarritu naiz lan honetan. Izan ere, minorrean zehar curriculumaren lanketa sakona eraman dugu aurrera, bai Heziberri 2020 legearen baitakoa eta baita EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroaren baitan idatzitakoa ere.

Ikusi dugu nola Gorputz Hezkuntzako ikasgaiak, pertsona modu integral batean hezteko potentzialitatea daukan, motrizitatea eskatzen duen egoera baten aurrean modu kognitibo, sozial, emozional eta fisiko batean erantzuteko baldintzak sortzeko aukera ematen duelako irakasgai honek. Helburu hori lortzera bidean urrats desberdinak eman dira Gorputz hezkuntzaren sorrera akademikotik gaur egunera arte.

Beraz, aldaketa fase baten aurrean gaudela ikusita eta profesionalen artean ezjakintasuna eta nora eza nagusi diren honetan, egokia iruditu zait Gorputz Hezkuntzak izan duen bilakaera historiko/pedagogikoa aztertu ondoren gaur egun indarrean dauden bi legeen arteko alderaketa juridiko bat egitea. Horretarako metodologia egoki baten hautaketa egin dut nire lanak izaera objektibo eta zientifiko bat izan dezan. Arestian esan bezala,, Von Savigny-ren metodologia hautatu dut azterketa bat egin eta legeak alderatu ahal izateko, lege bakoitzaren elementu linguistiko, sistemiko eta funtzionalak aztertuz.

3.MARKO TEORIKOA

3.1. GORPUTZ HEZKUNTZAREN IZAERA

Edozein jarduera fisiko aurrera eramateak gorputzaren mugimendua eskatzeaz gain, motibazioa, intenzionalitatea, inplikazio afektiboa edo autoestimua eskatzen du. Jarduera fisikoa aurrera eramateko jokaera motorrak martxan jarri behar ditu pertsonak, planteatzen zaion egoera motorra behar bezala gainditzeko (Parlebas, 2006).

Larrazek (2008) esan bezala, perspektiba honen baitan landuz gero, jarduera fisikoa ez da mugimendua bera arreta jarri beharreko puntua, baizik eta pertsona eta honek hartzen dituen erabaki kognitiboak, inplikazio afektiboa eta erabaki motorrak. Beraz, Gorputz Hezkuntzaren lanketarako elementu zentrala izan beharko luke jokaera motorraren lanketak.

Gorputz Hezkuntza, hezkuntza sisteman txertatutako alor bat den heinean, bere izaera bereizgarritik abiatuta, hezkuntza sistemak bere baitan dauzkan helburuak betearaztea du xede. Bere izaera propio hori jokaera motorrarekin lotu dezakegu, beste modu batera esanda mugimendua modu intenzionalizatu eta esanguratsu batean egitearekin. Honela, mugimenduaren kontzeptu soila gainditu eta ikaslearen inplikazio globalaren bidez pertsonaren gaitasun motorraz gaindiko zenbait gaitasun garatzeko lagungarri izan daiteke jokaera motorra lantzea (Ibidem).

3.2 EGOERA MOTORREN SAILKAPENA

Ikasleak bere jokaera motorrak jolas edo ariketaren barne logikaren baitara moldatzen ditu, hots, jolasaren ezaugarrien, aurkari edo taldekideen mugimenduen edo espazioaren ezaugarrien arabera bere jokaera motorrak moldatu edo egokitu behar izaten ditu. Barne logikaren azterketa eta kategorizazio bat egiteko tresna aproposa da praxiologia motorra. Praxiologia akzio motorra jarduera fisiko desberdinetan nola gorputzen den ikertzen duen zientzia da. Honek egoera motor desberdinen barne logikako elementu komunak eta bereizgarriak aztertu ondoren egoera bat edo beste planteatzean gorputzaren inplikazio motorra zein izango den edo izan beharko litzatekeen ondorioztatzeko balio digu (Ibidem).

Parlebasek (2008) egoera motor guztien barne logika sistema bitar baten baitan aztertzeko hiru elementu bereizi zituen: espazioaren edo ingurunearen ezagutza edo zalantza (Z , \underline{Z}), taldekideen presentzia edo presentziarik eza (L , \underline{L}) eta aurkariaren presentzia edo presentziarik eza (A , \underline{A}). Hauen konbinaketaren ondorioz, zortzi kategoria desberdin bereiz

ditzakegu sailkapen praxiologiko baten bidez. Hala, akzio motorren domeinuak (AMD) definitu zituen: Egoera motorraren baitan harremanek eta espazio fisikoaren ezaugarriek baldintzaturik motrizitateak homogeneousatzen dituen sailkapen sistema.

3.2.1 AKZIO MOTORREN DOMEINUAK

AMD desberdinak identifikatzeak Gorputz hezkuntzako egoera motor desberdinak kategoriatan desberdinetan sailkatzea baimentzen digu. Zehazki sei kategoriatan bereiz ditzakegu Gorputz Hezkuntzako saioetan aurki daitezkeen egoera motor desberdinak sailkatzeko.

Honako hauek dira Larrazek (2008) bereizten dituen Akzio Motorren Domeinuak:

- 1) Ingurune fisiko egonkor batean eta gainerako pertsonekin interakzio gabeko egoerak.: normalean parametro tenporal edo espazialean neurgarriak diren akzioak izaten dira. Adb: atletismoa, igeriketa edo gimnasia (L A Z).
- 2) Bakarkako eta oposiziozko egoerak: bata bestearen aurkako egoerak izaten dira eta hauek ingurune egonkor batean ematen dira. Adb: borroka jolasak eta erraketa jolasak (L A Z).
- 3) Kooperaziozko egoerak: jolas kooperatiboak edo zenbait errelebo lasterketa izan daitezke hauek, espazio egonkor baten baitan lantzen direnak. Elkar ulertzea eta elkartasuna bezalako baloreak gailentzen dira horrelako egoeretan (L A Z).
- 4) Kooperaziozko eta oposiziozko egoerak: jolas tradizionalak barne biltzen dituen domeinua litzateke honakoa, nahiz eta tradizionalak ez direnak ere barne bildu ditzakeen. Adb: marro, saskibaloia edo boleibola (L A Z).
- 5) Zalantzazko ingurune fisiko bateko desplazamendu bidezko egoerak, material desberdinak erabiliz edo materialik erabili gabe: eremu naturaletan eramaten dira aurrera eta ikasleak honen ezaugarri aldakorren baitan erantzun behar izaten du motorki. Adb: bizikleta txangoak, mendi irteerak edo orientazio lasterketak (L A Z) (L A Z) (L A Z).
- 6) Intentzio artistiko eta espresiboak inplikatzeko dituen egoerak: helburu estetiko eta komunikatiboak izan ohi dituzte eta taldekako proiektuak egiteko baliagarriak dira. Adb: dantzak, gorputz adierazpena edo gimnasia artistikoa.

AMD hauen sailkapenaren bitartez, Gorputz Hezkuntzak duen helburua lortzera begira, ikasturteko programazio antolatua egiteko modu bat eskaintzen digu Larrazek. Ruiz Pérez-ek (2014) adierazi bezala, konpetentzia motor holistikoa lantzea bada Gorputz Hezkuntzaren helburua, konpetentzia motorraren ikuspegi holistikoa hori egoera motor isolatuetan zaila da lortzea, hots, zaila da egoera motor bat planteatzea zeinetan ikasleari bere gaitasun motor,

kognitibo, sozial eta emozionalak mailarik gorenean eta maila antzekoan martxan jartzea eragingo dion. Hori lortzeko eguneroko bizitzan aurki ditzakegun egoera motor desberdinen planteamenduan datza konpetentzia motorrenen gakoak.

Zenbat eta egoera motor gehiago eta anitzagoak planteatu orduan eta gaitasun motor, kognitibo, emozional eta sozial gehiago jarri beharko ditu haurrak eta bere kultura motorra aberatsagoa izango da. Horrela, jokaera motorrak garatzeko baldintza gehiago sortuko zaizkio eta eguneroko bizitzan aurki ditzakeen arazo motor desberdinen aurrean modu eraginkorrean erantzuten jakingo du (Ruiz Pérez, 2014).

AMD hauen baitan Gorputz Hezkuntzan landu beharreko eduki multzoak sailkatu ditzakegu eta horrela unitateen arteko ordena logiko bat mantendu eta ikasleen ikasketan koherentzia bat bilatu dezakegu, ondoren aztertzeraz sartuko garen Aragoiko curriculumean gertatzen den bezala (Larraz, 2002).

3.2.2. KANPO LOGIKAREN GARRANTZIA

Behin akzio motorren domeinuak identifikatu eta definituta, esan beharra dago hauek praktikan jartzeko beste zenbait faktore hartu behar direla kontuan. Balore sozial eta kulturek eragina izan baitezakete akzio motorren domeinuen banaketan eta batzuek beste batzuek baino garrantzia handiagoa hartu dezakete. Gainera, domeinu bakoitzaren baitan irakaslearen ardura da ikasleen motibazioa piztuko duten jardura multzoak proposatzea eta azken hauen adina eta gaitasunak kontuan hartuta diseinatzea ikasturteko programazioa. Beraz, ikasleen interes eta motibazioak kontuan edukitzea ezinbestekoa da Gorputz hezkuntzako irakasle batentzat, betiere hauek hezkuntza proiektu pedagogiko orokor baten baitan, hots, akzio motorren domeinuen markoaren baitan justifikatzen baldin baditu (Parlebas, 2008).

Horrela, Gorputz hezkuntzan ematen diren egoeren analisi praxiologiko bat eginda, irakasleen pentsamenduak eta helburuak zeintzuk diren ondoriozta dezakegu. López de Sosoagak (2010) egindako ikerketari erreparatuta, Lehen Hezkuntzako 187 saio eta guztira 200 orduko analisi praxiologiko bat ikus dezakegu, 2005/2006 ikasturtean egina. Ordu guzti horien %91 egoera motorrak dira, hots, 1.225 egoera motorren azterketa egin zuen. Hauen barne logikaren analisia lau eremutan oinarritu zuen: espazioa, harremanak, denboralizazioa eta materialak. Analisi horretan nabarmendu ziren espazioaren zalantzarik eza, materialen erabilera anitza, egoera motor ziklikoen gailentzea eta ikasleen arteko harremanen presentzia nabarmena.

Hortaz, Gorputz Hezkuntzan, espazioaren zalantzarik ez egoteak, esan dezakegu eskolako segurtasun markoak eragina duela horretan. Materialen erabilera anitza, teknologiaren aurrerapen nahiari eta gure jokaera kontsumistei dagokie. Denboralizazio ziklikoak, hau da, garaipenik ezak, Lehen Hezkuntzako gainerako irakasgaien antzeko ezaugarri bat da. Emaizak baino prozesuak dauka garrantzia handiagoa. Azkenik, ondoriozta dezakegu, Gorputz Hezkuntza bereziki irakasgai soziala dela. Ikasleak gainerako ikasleekin harremantzera bultzatzen baititu (Ibidem).

Baina Gorputz Hezkuntza, gaur egun den horretara iristeko espainiar estatuan izandako hezkuntza legeen analisi bat egitea beharrezkoa da. Izan ere, 1970ean LGE (Ley General de la Educación) onartu zenetik gaur egunera arte hezkuntzako alor honek bilakaera nabarmena izan du.

3.3. GORPUTZ HEZKUNTZAREN BILAKAERA CURRICULARRA

3.3.1. SORRERA ETA HASTAPENEN LEGEAK

Lehenik eta behin, 1961. urtean Gorputz Hezkuntzaren Legea onartu zen, José Antonio Elola Olasok bultzatuta. Honekin, Gorputz Hezkuntza unibertsitatez kanpoko hezkuntza gradu guztietan txertatzen da. 1967. urtean INEF jarri zen martxan, Gorputz Hezkuntzako irakasleen formakuntza zentro gisara. Bi gertakari horiei 1970-ean onartutako LGE hezkuntza legea gehitu behar diogu Gorputz Hezkuntzaren hezkuntzarako inplantazioa ulertzeko. Lege hau garaiko Espainiako egoera sozioekonomikoa zela medio idatzi zen. Hezkuntza eredu konduktismoan oinarritzen zen eta irakaslearen lana jakintzaren transmisio bezala definitzen zen. Gorputz Hezkuntzak ez zuen berebiziko garrantzirik hartzen eta alorraren izena Gimnasia zen. Irakasgaiaren helburu nagusia kirol teknikak hobetzea (gaitasun kualitatiboak) eta egokitzapen fisikoa (gaitasun kuantitatiboak) ziren. Esan beharra dago profesional espezializatuen falta zegoela eta edozein irakasle aritzen zela Gorputz Hezkuntza irakasteko lanetan (Martín Flórez, Romero-Martín eta Chivite Izco, 2015).

1980. urtean Gorputz hezkuntza eta kirolari dagokionez, Kultura Fisikoaren eta Kirolaren Lege Orokorra onartu zen. Honekin Gorputz Hezkuntzako unibertsitateko ikasketak normalizatu eta arloko profesional gehiago izatea ahalbidetu zuen. Jarraian, 1985. urtean LODErekin hezkuntza publikoaren erregularizazioa iritsi zen eta hezkuntza doakoa eta derrigorrezkoa bilakatu zen herritar guztientzat (Ibidem).

3.3.2. LOGSE ETA LOEren ALDAKETAK

Hezkuntza sistemaren aldaketa nabarmen bat iritsi zen 1990. urtean LOGSE legearekin. Hezkuntza komunitate osoak hartu zuen parte honen elaborazioan eta hiru kategoria bereizi ziren: Administrazio zentrala, autonomia erkidegoak eta zentroa. Lehenengoak Errege Dekretu bidez hezkuntzako helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta ordutegiak zehazten ditu. Bigarrenak, ordea, bere lurralderako aproposa den curriculum idazten du bere helburu, eduki, ebaluazio irizpide eta metodologiak txertatuz. Zentroak berriz, curriculum hau bere ezaugarrietara are gehiago moldatzeko aukera dauka. Eredu pedagogiko konstruktibista da Hezkuntza lege honen oinarria, hau da, hezkuntzaren funtsa ikaslearen aurre jakintzak moldatu eta aberastea da (Molina, Valenciano Valcárcel eta Ubeda-Colomer, 2016).

Honakoak izan ziren lege honekin proposatutako eduki multzoak: 1) gorputzaren pertzepzioa, 2) trebetasun fisikoak, 3) gorputz adierazpena, 4) gorputza eta osasuna eta 5) jolasak. . Hala ere, Gorputz hezkuntzako espezialisten formakuntza oraindik ez zen behar bezain aberatsa.

Gorputz hezkuntzak pairatzen zuen hutsune hori betetze aldera, 2006. urtean onartutako LOE legea iritsi zen. Izan ere, lege hau garaian espainiar estatuan zegoen eskola porrot maila altua zela medio idatzi zen. Horretarako oinarrizko konpetentziak txertatu ziren, irakasgai bakoitzak honetan ekarpena egin behar izan baitzuen ikaslea gizartean bizitzeko pertsona aktibo bihurtu zedin. Gorputz hezkuntzan aldiz, eduki blokeak aldatu ez baziren ere, metodologikoki aurrerapauso bat eman zen (Martín Flórez, Romero-Martín eta Chivite Izco, 2015).

3.3.3 LOMCE ETA JOKAERA MOTORRAK

LOMCE Hezkuntza legearekin, ordea, Gorputz Hezkuntzaren izaeraren eta helburuen harira beste aurrerapauso bat eman zen. Lege honetan Gorputz Hezkuntzaren alorrean bi zati bereiz ditzakegu. Alde batetik, sarrera bat ageri da eta ondoren ebaluazio irizpideak eta ikaskuntza emaitzak. Lehenengo zatian ikasgaiaren zenbait helburu adierazten ditu arestian aipatutako autonomi erkidegoari dagokion administrazioak. Lege honetan aurrerapauso nabarmena ematen da legearen sarrerarekin. Irakasgaiaren antolakuntzarako eta kontzeptualizaziorako zenbait gako ematen baitira. Gako hauek Larrazek (2008) zehaztutako jokaera motorrari lotutako Gorputz Hezkuntzarekin lotu daitezke erabat. Honela, orain arteko ikuspegia gainditu eta gaitasun fisikoak kontestutik aterata eta modu isolatuan lantzetik egoera motor baten aurrean mugimendua bera gauzatzen duen pertsona aztertzerara pasatzen da Gorputz Hezkuntza gaitasun motorrez gain, emozionalak, kognitiboak eta sozialak ere kontuan hartuz (Molina, Valenciano Valcárcel eta Ubeda-Colomer, 2016).

Gainera, lege honetan Gorputz Hezkuntza jarduera fisikorako ohitura eta joerekin lotzen da. Izan ere, ikasle asko eta askoren asteroko jarduera fisiko bakarra ikastetxean ematen da. Honen aurrean, irakasleak jokatzen duen papera garrantzitsua da ikasleen gozamina bilatu eta hauek jarduera fisikoa egitera bultzatu eta motibatzeko (Julián, Abarca-Sos, Zaragoza eta Aibar, 2016).

Aurreko bi hezkuntza legeek ez bezala, LOMCEk ikasgaiko edukiak bost egoera motor desberdinetan antolatzeko aukera ekarri zuen. Izan ere, aurreko LOGSE eta LOE legeek logika zehatzik jarraitu gabeko hiru sailkapen mota jasotzen zituzten: bat norberaren mugitzeko gaitasunean oinarritzen zena, bestea joko-jolas eta ariketa artistiko espresiboetan oinarritzen zena eta azkena kanpo faktoreetan oinarritzen zena (higienea, beroketa, luzaketak...). Hiru sailkapen hauek ez dira baliagarriak gorputz hezkuntzako saio desberdinen programaketa bat egiteko ordena logiko bat jarraituz (Larraz, 2014).

3.3.3.1 LOMCEren BARNE INKOHARENTZIAK

Legearen bigarren zatian ebaluazio irizpideak eta ikaskuntza emaitzak ageri dira. Hauek aztertzeraz sartuta, 13 ebaluazio irizpide eta 44 ikaskuntza emaitza aurki ditzakegu Gorputz Hezkuntzako alorrean. Ebaluazio irizpideak aztertzeraz sartuta, ondoriozta dezakegu hiru azpi multzo atera daitezkeela: jokaera motorren pedagogiara bideratutako ebaluazio irizpideak (jarduera motorrak), jokaera motorren bidez jasotzen dugun pedagogia (osasuna, baloreak edo kultura) eta zehar irakaspenak (jarduera fisikoaren ondorioak, jarrera kritikoa izatea edo gorputzaren jarrera) (Julián, Abarca-Sos, Zaragoza eta Aibar, 2016).

Arestian aipatutako multzoetatik lehenengoari ebaluazio irizpideen %23 (3 ebaluazio irizpide) dagokiela, bigarrenari %31(4 ebaluazio irizpide) eta hirugarrenari %46 (6 ebaluazio irizpide). Beraz, lege honekin Gorputz Hezkuntzan gehien ebaluatzen dena jokaera motorrak izan beharrean, bestelako jakintzen eskuratzea da. Hau erabat lotu dezakegu aurreko bi hezkuntza legeekin, LOGSErekin eta LOErekin, hain zuzen. Honela, inkoherentzia nabarmen bat ageri da LOMCEren bi atal nagusien artean. Batean, jokaera motorretan oinarritzen den irakasgaia dela azaldu arren, bestean egoera motor desberdinak modu antolatuan sailkatzeko aukerarik ematen ez duten mekanismoak proposatzeaz gain, bestelako jakintzek jokaera motorrek baino garrantzia handiagoa daukate (Ibidem)

3.3.3.2 ARAGOIKO CURRICULUMA

Egoera honetan, aparteko kasu bezala hartu behar dugu Aragoiko Gorputz hezkuntzarako proposamen curricularra. Izan ere LOMCE legean ematen den inkoherentziaren aurrean Aragoik bere proposamen propioa egin zuen, legeak horretarako aukera ematen baitzuen.

Horrela, irakasgaiaren helburua jokaera motorrak hobetzea zela kontuan izanda eta egoera motor guztiek ez dituztela jokaera motor berdinak inplikatzeko, egoera motorrak, akzio motorren domeinuen arabera sailkatu eta bost eduki bloke proposatu zituzten (Alonso, Fernández-Río, Giménez, eta Sabori, 2015)

Hauek LOMCE legeak bere lehenengo zatian zekartzan bost kategoriak dira. Horrez gain, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntza emaitzak moldatu eta osatu zituzten. Horrela, Jokaera motorren pedagogiara bideratutako ebaluazio irizpideak (jarduera motorrak) %35 a ziren, jokaera motorren bidez jasotzen dugun pedagogia (osasuna, baloreak, kultura...) %37 eta zehar irakaspenak (jarduera fisikoaren ondorioak, jarrera kritikoa izatea, gorputzaren jarrerak...), berriz, %28 (Julián, Abarca-Sos, Zaragoza eta Aibar, 2016).

4.HELBURUAK

- Gorputz Hezkuntzaren asmo pedagogikoaren justifikazio curricularra aztertzea Heziberri 2020 eta EAEko Hezkuntza legearen zirriborroan.
- Heziberri 2020 eta EAEko Hezkuntza legearen arteko alderaketa egitea arlo linguistiko, sistemiko eta funtzionala erreparatuz.
- EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak Gorputz hezkuntzako arloan ekarriko dituen aukera berrien analisisa egitea.

5.HIPOTESIAK

- Lege zaharretik lege berrira helburu pedagogikoan aldaketa nabarmenik egon ez arren, ikasgaiaren antolaketan berrikuntzak daude batetik bestera helburua lortzeko erraztasunak ekarriko dituztenak.
- Gorputz Hezkuntzako ikasgaiko urte osoko plangintza zein programazioak egiteko tresna erabilgarriak dira hezkuntza curriculumak.
- LOMCE eta Heziberri 2020 eta LOMLOE eta EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroaren artean antzekotasun handiak daude.

6.METODOLOGIA

Lan honetan egingo dudan ikerketari dagokionez, bi legeren arteko alderaketa bat egingo dut. Legeak Heziberri 2020 eta aurten onartu berri den EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroa izango dira. Alderaketatik atera nahi ditudan ondorioak, bakoitzak ematen dituen aukerak eta mugak zeintzuk diren aztertzea izango da, betiere Gorputz Hezkuntza irakasgaiaren helburua haurren kompetentzia motorra garatzea dela jakinda.

Hori aurrera eramateko, lehenik eta behin, lege bakoitzaren analisisia egin beharko da. Horretarako, Von Savignyren metodoa erabiliko dut. Metodo hau Friedrich Karl von Savigny legelariak diseinatu zuen XIX. mendean. Honen helburua zuzenbideari izaera zientifiko bat ematea izanik, edozein norbanako legegilearen paperean jarrita, legea aztertzeko zenbait gako ematen ditu. Beraz, nik egingo dudan azterketa hau azterketa zientifiko bat izango da, hots, legearen izaeran ez du aldaketarik eragingo, baizik eta metodo objektibo batean oinarrituz nire ikuspuntua emango dut arestian aipatutako bi legeen inguruan.

Von Savignyren metodo interpretatiboa erabili izan duten autore desberdinek hiru analisi mota bereizi dituzte, hauek elkarren artean autonomoak diren arren, hiru analisi desberdin hauekin egin genezakeen legearen analisi orokor eta osatuena egiteko aukera ematen digute. Honakoak dira bereizten diren hiru kategoriak: elementu gramatikal edo linguistikoa, elementu sistemikoa eta elementu funtzionala.

6.1. ELEMENTU LINGUISTIKOA

Elementu linguistikoari dagokionez, testu juridikoaren idazkera aztertzean datza. Izan ere, honek legegilearen irakurlearengana iristeko borondatea islatzen digu. Erabiltzen diren hitz, paragrafo eta esaldiak aztertzen ditugu elementu linguistikoaz ari garenean, batzuetan anbigutasunak eta indefinizioak agertzen baitira testu juridikoetan, hala irakurlearen desorientazioa lortuz (Von Savigny, 1994).

Horrela, testu juridiko batean erabili behar dugun hizkerak erraz ulertzekoa izan beharko luke eta sintaxiari eta lexikoari dagokionez ere esaldi laburrak eta egitura gramatikal sinpleak izan beharko lituzke (Igartua, 1994).

Beraz, hauek izan daitezke testu juridiko batean analisi linguistiko bat egiterakoan nabarmendu daitezkeen akatsak: testuaren antolaketa oker batek eragindako idazketa

arazoak, eduki falta, zehaztasunik gabeko kontzeptuen erabilpena, anbiguitasunak eta erratak. Hauek identifikatuz, esan dezakegu ea testu juridiko bat ulergaitza edo ulergarria den.

6.2. ELEMENTU SISTEMIKOA

Elementu sistemikoaz ari garenean, ordea, legea sistema ordenatu baten baitan sartzen den edo ez aztertzeaz ari gara: sistema, betiere, osotasun ordenatu bat dela kontuan izanik. Honek esan nahi du legea sistema juridiko osoarekin logikoa den edo ez aztertzen dugula analisi honetan. Finean, koherentziaz ari gara (Igartua, 1994).

Horrela, analisi sistemiko bat egitean, testu juridikoak osotasun juridiko batean jokatzen duen paperaz ari gara. Beraz, bertan aurki ditzakegun elementuak koherentziak zein inkoherentziak eta hutsuneak izan daitezke.

6.3. ELEMENTU FUNTZIONALA

Azkenik, elementu funtzionala aztertzeaz ari garenean, legeak daukan helburu edo filosofiaz ari gara. Horretarako, normalean legearen hasieran edo azalpenean ageri zaigu zer den lege horrekin bilatu nahi dena, edo lege horren arrazoia. Beraz, hau aztertu eta ondorengo ataletan datorren edukia kontuan hartuta, ea legea gauzagarria den jakiteko balio du analisi honek. Horrez gain, legearen logika historikoa eta justifikazioa bilatzeko ere balio digu (Grau, 2007)

7. HEZKUNTZA LEGEEN ANALISIA

7.1 ELEMENTU LINGUISTIKOA

Hasteko Heziberri 2020 Hezkuntza legearekin arituko gara. Aipatu beharra dago legea argi idatzia dagoela eta Lehen Hezkuntzan irakasle izateko ikasketak egin dituen eta atal hau ulertzeko batez ere Gorputz Hezkuntzan espezializatua den edonork uler ditzakeela bertan ageri diren hitz eta egitura gramatikalekin zein den Gorputz Hezkuntzaren helburu pedagogikoa, baita hori gauzatu ahal izateko mekanismoak ere. EAEko hezkuntza legearen zirriborroa ere bide beretik doa. izan ere, oro har modu egoki eta ulerkor batean idatzita dago eta Gorputz Hezkuntzaren asmo pedagogikoa eta hau lortzeko jarraitu beharreko bidea ondo uler dezake irakurleak.

Lehen Hezkuntzako zein Gorputz Hezkuntzako espezialista orok ulertzearen arrazoia, hitz tekniko desberdinen erabilera da. Alde batetik, eduki multzo, kompetentzia, ebaluazio irizpide eta lorpen adierazleak esanahia eta hauek curriculum batean betetzen duten funtzioak jabetua egotea komeni zaio irakurleari. Gorputz Hezkuntzako arloari dagozkion zenbait hitz teknikoren esanahia jakitea ere komeni da. Hala nola, kompetentzia motor, jokaera motor, mugimendu, trebetasun edo abilezia.

7.1.1. SINONIMIAK

Zentzu horretan lege batetik bestera asko dira kontzeptu bera adierazteko erabiltzen diren hitzak. Esan daiteke hauek hitz gakoetako batzuk direla bi hezkuntza legeetako Gorputz Hezkuntzaren ataletan. Izan ere, “gorputza”, “mugimendua” eta “jokaera/jokabide motorrak” behin eta berriz errepikatzen dira. Gorputzak norberak duen gorputzari eta honek dituen ezaugarriak egiten die erreferentzia, mugimendua berriz, gorputz horrek egiten dituen ekintzei eta jokaera motorrak gorputzak egiten dituen mugimendu intentzionalak, gorputzaren gaitasun fisikoen gain pertsonaren bestelako gaitasun batzuk kontuan hartzen dituen mugimendua.

Bestalde, “jardun motorra”, “jarduera fisikoa” eta “trebetasunak” bezalako terminoak ere behin eta berriz azaltzen dira bi legeetan kontzeptu bera azaltzeko. Jardun motorrak pertsonak egiten duen jarduera intentzionala egiten dio erreferentzia, jarduera fisikoa gorputzak egiten duen eta energia gastua suposatzen duen jarduerari egiten dio erreferentzia eta trebetasunak gorputz batek jarduera bat egiteko duen ahalmen bereziari edo garatu duen ahalmenari.

7.1.2 ANBIGUOTASUNA: KONPETENTZIA MOTORRA

Aztergai ditugun bi hezkuntza legeen artean badaude desberdintasun linguistikoak eta desberdintasun horiek lege baten edo bestearen anbiguotasunak agerian utz ditzake. Horren adibide garbia da irakasgaiaren beraren oinarrian dagoen konpetentzia motorraren trataera. Heziberri 2020-n Konpetentzia Motorra irakasgaia bere baitan hartzen duen kontzeptu gisa azaltzen da. Hala, Gorputz Hezkuntzaren helburua haurrek egoera motor desberdinei modu intentzionatu batean erantzutea da.

EAEko Hezkuntza legearen zirriborroan, ordea, Gorputz hezkuntzaren arloaren baitan sartzen den kontzeptu bat da konpetentzia motorra. Beste modu batera esanda, Gorputz Hezkuntzaren helburua haurren konpetentzia motorra garatzea da. Horretarako, konpetentzia motorraren baitan, konpetentzia espezifikoak bereizten dira, hauek arloaren oinarrizko jakintzak izango dira ondoren. Hortik dator konpetentzia motorrak pluralean erabiltzearen arrazoia. Heziberri 2020 legean ez baitira konpetentzia motorrak agertzen, baizik eta konpetentzia motorra modu singularrean adierazita.

Beraz, hemen anbiguotasun bat ageri zaigu: konpetentzia motorra izena bera, ikasgaiari izena ematen dion kontzeptua izatetik Gorputz Hezkuntza arloaren asmo pedagogiko gorena izatera pasa da. Heziberri 2020-n faltan daukan eduki osaketa bat eman zaio Hezkuntza Legearen zirriborroan, baina aldi berean konpetentzia motorraren terminoak berak irakasgaietan betetzen duen papera ere aldatu egin da, izena izatetik helburu izatera pasa da.

7.1.3. TERMINOLOGIA ALDAKETAK

7.1.3.1. IRAKASGAIK ETA JAKINTZAGAIK

Terminologia aldetik ageri den beste desberdintasun linguistiko bat, LOMLOE-k eragindako terminologia aldaketak dira. Izan ere, orain arte Heziberri 2020-n “irakasgai” deitu diren horiek: Matematika, Atzerriko Hizkuntza, Gorputz Hezkuntza edo Musika. Orain “arlo” edo “jakintzagai” izatera pasako dira. Honek, “irakasgai” izenak daukan anbiguetatea edo zehaztasunik eza agerian uzten duela esan genezake. Bi terminoak izatez sinonimoak diren arren, irakasgai terminoak izan dezakeen konnotazioa eta hezkuntzak berak duen helburu orokorra baliteke bat ez etortzea.

Gaur egungo hezkuntzaren helburu orokorra ikasleak gaitasunak eskuratzea bada, (hala ageri baita bai Heziberri 2020 eta baita EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroko Gorputz Hezkuntzaren atalen lehenengo zatietan zeinetan Gorputz hezkuntzaren asmo pedagogiko orokorrak azaltzen diren) ikasten duten horri “jakintzagai” izena jartzea egokiagoa da “irakasgai” jartzea baino. Honela irakaslearen papera zein den ere argiago geratzen da izena

irakurtzean, hezkuntza laguntzailearen papera jokatzeko duela alegia, ikaslea ikaskuntza/irakaskuntza prozesuko protagonista izanik. Kontrara, "irakasgai" terminoak, irakasleari erreferentzia handiagoa egiten baitio eta irakaslea jakintzen transmisore gisa irudikatzen du ikaslearen heziketa prozesuko laguntzaile gisa irudikatu beharrean.

7.1.3.2. TERMINOLOGIA ALDAKETAK: EDUKI-MULTZO ETA OINARRIZKO JAKINTZAK

Aipatutako terminologia aldaketez gain, badaude aldaketa terminologiko gehiago hezkuntza lege biak alderatzen baditugu: Heziberri 2020ri dagokionez "eduki multzoak" deitzen direnak, EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan "oinarrizko jakintzak" dira. Azken hauek arestian aipatu bezala kompetentzia motorra osatzen duten kompetentzia espezifikoetatik eratorritako jakintzak dira.

7.1.4. ANBIGUOTASUNA: OSASUNAREN KONTZEPTUAZ

Analisi linguistikoarekin amaitzeko beste azken anbiguotasun bat ikus dezakegu bi lekeen arteko alderaketa eginez gero. Heziberri 2020 Hezkuntza legearen Gorputz hezkuntzako laugarren eduki multzoan Jarduera Fisikoak osasunean daukan eraginaz jarduten da legegilea. Bertan, egoera fisiko osasuntsu batek kirol jardueran daukan eragin positiboa adierazten da, horren ondorioz jarduera fisikorako ohitura izatearekin lotzen da osasuna, norberaren ongizatea eta ongizate soziala jarduera fisikoa praktikatzearekin lotuz. Horretarako bide bezala gorputza ezagutzea eta trebetasun espezifikoak garatzea planteatzen da, hots, norberaren osasun fisikoari garrantzia berezia ematen zaio.

EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan, ordea, lehenengo kompetentzia espezifikoa egiten zaio erreferentzia jarduera fisikoak osasunean daukan eraginari. Kasu honetan jarduera fisikoak osasun emozional, sozial eta fisikoan eragiten duela ageri da. Egoera fisiko osasuntsu batek jarduera fisikoa praktikatzea eta honela gure ongizate pertsonal eta soziala hobetzeaz gain, jarduera fisikoak norberarengan dituen eragin desberdinez mintzo da legegilea: autoestimua edo autokontzeptua gorputzaren zaintza. Horretaz gain, eguneroko kirol edo jarduera fisikoan bizitako egoerek eragin ditzaketen kostu emozionalak (adibidez gatazka desberdinek eragindakoak) barne biltzen ditu kompetentzia espezifiko honek. Honela osasuna bere osotasunean landuz eta ez arlo fisikoan soilik.

Honek Heziberri 2020 legearen anbiguotasun bat islatzen digu, osasunaren trataerarena. Osasun fisikoak ongizatea dakarkigula adierazten baitigu, hots, osasun fisikoa irudikatzen da osasunaren kontzeptu osoaren ardatz nagusi gisa. Kontrara, EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak, osasuna bere osotasunean hartu eta jarduera fisikoak honengan izan ditzakeen eragin positibo zein negatiboak kontuan hartzen ditu eta hauekiko jarrera kritikoa sustatzen

du. EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroa ez baita osasunaren aferaz mintzatzen hasten osasun fisikotik abiatuta, baizik eta jarduera fisikoak osasun fisiko, mental eta sozialean dauzkan eraginez mintzo da. Lege batetik bestera sakonago lantzen da osasunaren kontzeptua eta jarduera fisikoak honengan duen eragina.

	HEZIBERRI 2020	EAEko HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRRIBORROA
SINONIMIAK	-Mugimendua, gorputza eta jokabide motorra. -Jardun motorra, jarduera fisikoa eta trebetasunak.	-Mugimendua gorputza eta jokabide motorra. -Jardun motorra, jarduera fisikoa eta trebetasunak.
ANBIGUOTASUNAK	-Konpetentzia motorra: Ikasgaia bere baitan hartzen duen terminoa da. Egoera motor desberdinei modu intenzionatu batean erantzutea da konpetentzia honen helburua. -Osasuna: Jarduera fisikoak gorputzaren ezagutza eta trebetasun desberdinak hobetuz, norberaren osasun fisikoan eragina dauka. Norberaren osasun fisiko egokiak ongizate sozialean ere eragiten du.	-Konpetentzia motorrak: Zenbait konpetentzia espezifiko osatzen duten konpetentzia. Konpetentzia espezifiko hauek ikasgaiaren oinarritzko jakintzak osatzen dituzte. -Osasuna: Jarduera fisikoak eragina dauka norberaren osasun fisiko, mental eta sozialean. Osasuna osotasun batean lantzen da hezkuntza lege honetan eta jarduera fisikoaren eta osasunaren arteko jarrera kritikoa sustatu.
TERMINOLOGIA ALDAKETAK	-Irakasgaiak: Irakaslearen protagonismoa irudikatu dezake, hezkuntzaren helburua haurren heziketa denean. -Eduki multzoak: Konpetentzia motorra lortzera begira zenbait eduki multzo izendatzen dira.	-Jakintzagaiak edo arloak: Irakaslearen presentzia bigarren plano batera eta jakintzak eskuratzeari garrantzia handiagoa ematea irudika dezake termino honek. -Oinarritzko jakintzak: Konpetentzia espezifiko bakoitza oinarritzko jakintza bat da honela osotasun bat osatuz: konpetentzia motorra.

1. Irudia. Elementu linguistikoaren analisiaren laburpena (nik eginda).

Behin bi legeen analisi linguistikoa eta elkarren arteko alderaketa eginda, hasieran aipatu bezala, esan dezakegu biak daudela garbi eta espezialista batek ulertzeko moduan idatzita. Baina ikerketa honen xedea alderaketa egitea denez, bietatik bat argiago idatzia dagoela esan beharra dago. EAE-ko Hezkuntza legearen zirriborroak hitzak zainduago erabiltzen dituela ikusi ahal izan dugu. Horren adibide dira atal honetan zehar aipatutako terminoak, “osasunarena” eta “jakintzagaiena”, batez ere. Nabari da Heziberri 2020tik EAEko Hezkuntza Legearen zirriborrora hobekuntzarako ahalegin bat egin dela idazteko moduaren eta erabiliko den terminologiaren arloari erreparatuz.

7.2. ELEMENTU SISTEMIKOA

Elementu sistemikoaren analisia egiteko lege bakoitzaren koherentzia inkoherentzia eta hutsuneak aztertuko ditugu sistema juridikoan ezartzen den hierarkia kontuan hartuz eta hezkuntza lege bakoitzari dagokion errege dekretuarekin alderaketak eginez. Horretarako, Lege bakoitza errege dekretu banarekin lotu beharko dugu. Heziberri 2020 hezkuntza legea LOMCE ren baitan kokatu behar dugu. Hau 126/2014 Errege Dekretuan dator jasota. EAEko Hezkuntza legearen zirriborroa, ordea, LOMLOEren baitan kokatuko dugu; hau abenduaren 29 ko 3/2020 Errege Dekretuan onartu zen eta bere garapen curricularra martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretuan onartu zen.

7.2.1. HEZIBERRI 2020

126/2014 Errege Dekretuan ageri den bezala, Gorputz Hezkuntzaren helburua jokaera motorrean zentratzen da eta mugimenduari garrantzia emateaz gain mugimendua martxan jartzen duen pertsona eta bere asmoak hartzen dira kontuan. Gainera, trebetasun fisikoak modu isolatu eta espezifikoki batean lantzearen ideiarekin bukatu eta eguneroko bizitzan gerta daitezkeen egoera errealekara hurbilpen bat egiteko apustua egiten da lege honekin Gorputz Hezkuntzako ikasgaietan. Horrez gain, ikaslea bere osotasunean ulertzeko urratsa ematen da, hots, jokaera motorra pertsonaren mugimenduekin lotzeaz gain, intenzionalitateari eta mugimendu bakoitzaren esanahiari garrantzia ematen zaio.

Jarduera fisikoaren eta osasunaren arteko loturari ere garrantzia ematen zaio lege honen sorrerarekin. Ikasleen gehiengoaren jarduera fisikorako asteko momentu bakarra Gorputz hezkuntzako orduak direnean, garrantzitsua ikusten da haurrengan jarduera fisiko praktikatzeko ohiturak sustatzea eta haien gozamina bilatzea ikasgai honen bitartez.


7.2.1.1 KOHERENTZIAK

Heziberri 2020 hezkuntza legea hartu eta kompetentzia motorrari dagokion atalaren lehen zatia irakurriz gero, ikasgaiaren asmo pedagogikoan bat datoz 126/2014 Errege Dekretua eta Heziberri 2020 hezkuntza legea. Heziberri 2020-n arazo motor errearen soluzioa aipatzen ez den arren, gorputz hezkuntzako ikasgaiaren garapen motorrak kognitiboarekin daukan lotura estua ageri da, baita jolasaren edo kultura motorraren bidez haurraren ikaskuntza prozesua aberasteko intentzioa ere. Erlazionatzeko esparru gisa irudikatzen da gorputz hezkuntza eta errespetua bezalako baloreei garrantzia handia ematen zaie. Azken hau eguneroko egoera errealetara hurbilpen bat emateko berebiziko garrantzia duen balore bat da. Gizartean bizitzeko beharrezkoak diren baloreen transmisioa baita Gorputz hezkuntzaren asmo pedagogikoetako bat Heziberri 2020-n.

Heziberri 2020-k bat egiten du 126/2014 Errege Dekretuarekin ohitura osasungarrien sustapenaren asmo pedagogikoarekin ere. Heziberri 2020-ren Gorputz hezkuntzako ikasgaiaren atalean garbi adierazten da ikasgai honetan haurren jarduera fisikorako ohiturak sustatu nahi direla hau praktikatzek dakartzan ondorio osasungarriak zeintzuk diren adieraziz haurrei.


7.2.1.2 INKOHARENTZIAK

Errege Dekretuan akzio motorren domeinuak aipatzen badira ere, kontraesankorra da 126/2014 Errege Dekretuak proposatzen dituen ebaluazio irizpide eta lorpen adierazleekin alderatuz gero. Lan honetan aipatu bezala, Julián, Abarca-Sos, Zaragoza eta Aibarren (2016) arabera 13 ebaluazio irizpidetatik 3 jokaera motorren pedagogiara bideratutakoak dira, 4 irizpide jokaera motorren bidez jasotzen dugun pedagogiara eta 6 zehar irakaspenetara. Irizpide hauek aurreko hezkuntza legeetara egokitutakoak dira.



2.Irudia. 126/2014 Errege Dekretuko ebaluazio irizpideak (nik eginda).


Hori kontuan hartuta, Heziberri 2020 hezkuntza legearen ebaluazio irizpideak aztertzen hasita, inkoherentzia bat nabarmentzen dela esan dezakegu. Ez baita 126/2014 Errege Dekretuan ageri den proportzioa ageri Heziberri 2020 hezkuntza legean. Izan ere, lehen Hezkuntzako lehenengo zikloari erreparatuz, bederatzi ebaluazio irizpidetik sei (lehenengoa, bigarrena, hirugarrena, bosgarrena, zazpigarrena eta zortzigarrena) jokaera motorren pedagogiara bideratutako ebaluazio irizpideak dira. 126/2014 Errege dekretuan %23 izatetik Heziberri 2020-n %66,6 izatera pasa da. Bederatzi irizpidetik bi (seigarrena eta bederatzigarrena), jokaera motorren bidez jasotzen dugun pedagogiara bideratutakoak dira, 126/2014 Errege dekretuan %31 izatetik Heziberri 2020-n %22,2 izatera pasa da. Laugarren ebaluazio irizpidea, ordea, zehar irakaspenei bideratutakoa dela esan dezakegu, ebaluazio irizpideen %11,1 da Heziberrin eta %46 126/2014 Errege dekretuan.



3.Irudia. Heziberri 2020: 1. Zikloko ebaluazio irizpideak (nik eginda).

Bigarren zikloko ebaluazio irizpideei dagokienez, zortzi irizpidetik hiru (lehenengoa, bigarrena eta zazpigarrena) dira jokaera motorren pedagogiara bideratutakoak, beste hiru (bosgarrena, seigarrena eta zortzigarrena) jokaera motorren bidez jasotzen dugun pedagogiara bideratutakoak dira eta azken biak (hirugarrena eta laugarrena) zehar irakaspentara bideratutakoak. Aurreko paragrafoan zein paragrafo honetan, inkoherentzia ageri da Julián, Abarca-Sos, Zaragoza eta Aibarrek (2016) egindako 126/2014 Errege Dekretuko ebaluazio irizpideen eta Heziberri 2020-n irizpide horien arabera egindako sailkapenen artean, proportzioak kontuan hartuta.

Heziberri 2020: 2.Zikloko ebaluazio irizpideak



4.Irudia. Heziberri 2020: 2. Zikloko ebaluazio irizpideak (nik eginda).

7.2.1.2. BARNE INKOHERENTZIA

Helburu pedagogikoa jokaera motorrak direla jakinda, eduki multzoak erreparatuta barne inkoherentzia bat nabarmentzen dela esan dezakegu. Jokaera motorrak bereganatzeko egoera motor desberdinak planteatu beharko zaizkio haurrari bere kultura motorra aberastu dadin eta gaitasun motor, emozional, sozial eta kognitiboak maila berean landu ditzan. Horretarako, ezaugarri antzekoak dituzten egoera motorrak sailkatzeko mekanismoak proposatu beharko ditu curriculumak. Eduki multzoetan, aldiz, antzeko ezaugarriak dituzten egoera motorrak errepikatu daitezke eduki multzo batetik bestera eta horrek antolamendu ordenatu baten falta eragin dezake Gorputz Hezkuntzaren baitan. Beraz, barne inkoherentzia baten aurrean gaudela esan dezakegu.

7.2.1.3. HUTSUNEAK

Heziberri 2020 legea aztertuz gero, berriz, hutsune bat aurki dezakegu 126/2014 Errege Dekretuarekin alderatuz. Hutsune bat dagoela diogu eduki multzoak ez daudelako AMDen arabera antolatuta eta hauekin zerikusirik ez daukaten bost eduki multzo identifikatzen ditugulako hezkuntza lege honetan: eduki komunak, norberaren ezagutza eta kontrola, gorputz adierazpena eta komunikazioa, jarduera fisikoa eta osasuna eta kultura motorra.

Eduki multzo horiekin ezin dugu ikasturte bat Akzio Motorreko Domeinuen arabeko ordena baten arabera antolatu eta aldi berean curriculumeko eduki multzoen ordena logiko bat mantendu, eduki multzo bakoitzean mota desberdinetako egoera motorrak planteatu daitezkeelako. Beraz, hutsune bat ageri zaigu ikasgaia modu ordenatu batean programatu ahal izateko tresna moduan, AMD multzoen faltagatik.

7.2.2.EAEko HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRIBORROA

157/2022 Errege Dekretuaren arabera, Gorputz Hezkuntzaren helburuak bizitza aktibo baten sustapena, norberaren gorputzaren ezagutza, izaera motorreko adierazpen kulturaletara hurbilpen bat ematea eta egoera motorrak ebazteko behar bezalako erabakiak hartzeko gaitasunak eskuratzea dira. Horrela, ikaslearen bizitza aktiborako ohiturak sustatzeaz gain, kompetentzia motorra garatuz, ikaslearen garapen integrala bermatzen da. Ikasleek Lehen Hezkuntzako etapa behin bukatuta, gizartean bizitzeko gai diren pertsonak hezte da hezkuntzaren helburua, baita Gorputz Hezkuntzarena ere. Horrela, haurrak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasatzean, egoera motorrak modu integral batean erantzuteko gaitasuna lortu nahi da Gorputz hezkuntzan Lehen Hezkuntzako etapan, behin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza pasata jarduera fisikorako ohitura osasuntsuak izan ditzaten hurrek.

7.2.2.1. KOHERENTZIAK

7.2.2.1.1. ARLOAREN HELBURU PEDAGOGIKOA

EAE ko Hezkuntza Legearen zirriborrora jota, Gorputz hezkuntzaren asmo pedagogikoa bat dator 157/2022 Errege Dekretuarekin. Izan ere, haurren kompetentzia motorra garatzea da Gorputz Hezkuntzaren helburua. Horretarako, egoera motor desberdinak planteatzea dagokio arlo honi, haurren ekintza motorra ardatz izanda. Harremani eta emozioei tokia utzita, jokabide motorren hezkuntzaren bidez, premia pertsonalei eta sozialei erantzungo dien kompetentzia motorra garatzea da arlo honen funtsa. Jokaera motor bakoitzaren atzean, pertsonaren mugitzeko gaitasunaz gain, beste hainbat ezaugarri biologiko, emozional, kognitibo eta sozial azaleratzen direla ulertzen da. Hortaz, pertsona bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuta lortu nahi da bere garapen integrala. Horrela lortuko da 157/2022 Errege Dekretuak dioen bezala, gizarte sozialean bizitzeko gai den eta ezaugarriak dituen pertsona bat. Beraz, zenbait irteera profil zehaztu dira EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan, zeintzuk ikasleek beraien Lehen Hezkuntzako etapa bukatu dutenean irteera profil honetako ezaugarriak bete egin beharko dituzten. Beraz, esan daiteke koherentea dela EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroko Gorputz Hezkuntzaren asmoa 157/2022 Errege Dekretuko Gorputz Hezkuntzaren asmo pedagogikoa kontuan hartuz gero.

7.2.2.1.2 OINARRIZKO JAKINTZA MULTZOAK

Kompetentzia motorra behar bezala garatu dadin Lehen Hezkuntzako hurrengan, 157/2022 Errege Dekretuan oinarritzko jakintza multzo desberdinak bereizten dira zeinak tokian tokiko hezkuntza legeak diseinatzerako orduan AMDetan sailkatzeko aukera ematen duten. Izan ere, jakintza multzo hauek modu ez isolatuan lantzeko proposamena egiten du 157/2022

Errege Dekretuak. Beraz, ikasturte osoan zehar jakintza hauen guztien lanketa planifikazio eta ordena baten baitan aurrera eramateko modu bat izan daiteke, ikasturte osoko jakintza multzoak AMDen arabera ordenatuta egotea. Hauek aukera ematen baitute oinarrizko jakintza multzo guztiak modu heterogeneo batean lantzeko

Beraz, 157/2022 Errege Dekretuak jakintzen arteko erlazioaren eta egoera motor desberdinak planteatzearen inguruan egindako proposamena kontuan hartuta, modu koherente batean planteatzen dira oinarrizko jakintzak EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan. Irakasle batek bere ikasturte osoko jarduna programatu eta antolatzeko aukera ematen baitu uneoro oinarrizko jakintza bat baino gehiago kontuan hartuz eta egoera motorren arabera sailkatutako blokeak planteatuz.

Arestian aipatutako kompetentzia motorraren barneraketa egoki bat lortzeko, 157/2022 Errege Dekretuak kompetentzia motorraren baitan beste bost kompetentzia espezifiko sailkatzen dira, hauen lanketaren bidez hurren kompetentzia motorraren garapen erreal eta integrala bermatzeko. 157/2022 Errege Dekretuan egitura jakin batean datoz idatzita, hain zuzen, zer, nola eta zertarako baldere erantzunda.

7.2.2.1.3. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideei dagokienez, kompetentzia espezifiko bakoitzeko irizpide bat eta bere lorpen adierazleak izan behar dituela adierazten du 157/2022 Errege Dekretuak. Gauza bera ematen da EAEko Hezkuntza Legearen Zirriborroan. Beraz, esan dezakegu koherentziaz jokatu duela legegileak. Hortaz, lege hau ez dugula sistema juridiko batetik at bereizten eta hierarkia juridikoan gainetik dauzkan legeekin bat dator.

7.2.2.2. BARNE INKOHARENTZIA: KONPETENTZIA MOTORRA

EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroarekin, Heziberri 2020-n ez bezala, kompetentzia motorra ez da ageri gainerako arloen mailan, Gorputz hezkuntza ez dago kompetentzia motorra izeneko arlo bati lotuta, baizik eta Gorputz Hezkuntzaren helburu gisa aipatzen da kompetentzia motorra.

Horrek arloa oinarrizko lotura sendo gabe uzteko arriskua dakar, arloari sustraiak moztu balizkiote bezala. Izan ere, aurreko hezkuntza legean kompetentzia motorraren baitan antolatzen zen irakasgai osoa eta orain kompetentzia motorra ez da arloari edukia ematen dion kontzeptua, curriculumarekin erreparatuta behintzat. Horrek inkoherentzia eratu dezake Gorputz hezkuntzaren arloaren norabidea ezartzerako orduan.

Esan beharra dago baina, arloa konpetentzia motorraren baitan sartu ez arren, konpetentzia espezifikoko batzuk ageri direla curriculumean Gorputz hezkuntzaren arloan. Konpetentzia hauetatik gehienak motorrak dira eta guztien artean konpetentzia motorra eratzen dute. Horrela, Gorputz Hezkuntzaren asmo pedagogikoa zein izan behar den definitzen da curriculumean eta inkohherentziak izateko aukera murriztu egiten da.

7.2.2.3. HUTSUNEAK

EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroa hartuta, konpetentzia espezifikoko hauek AMDetara eratortzen dira eta horiekin batera gorputz adierazpenari eta jarduera fisikoaren garrantziari dagozkien beste bi konpetentzia espezifikoko txertatzen dira. Zentzu honetan, hutsune bat dagoela esan dezakegu gorputz adierazpenak daukan garrantziaren arrazoiketaren inguruan. Izan ere, gorputz adierazpeneko zenbait praktika akzio motorreko domeinuen barnean sartu ditzakegu. Dena den, hauek daukaten potentzialitate komunikatiboa eta emozionala ez dira aipatzen EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan, nahiz eta bai konpetentzia espezifikoeetan eta baita oinarrizko jakintza multzoetan ere beraien tokia izan.

	HEZIBERRI 2020 eta 126/2014 ERREGE DEKRETUA	EAEko HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRRIBORROA eta 157/2022 ERREGE DEKRETUA
KOHERENTZIAK	<p>Asmo pedagogikoa: Mugimenduari garrantzia emateaz gain, pertsona eta asmoari garrantzia ematen zaio.</p> <p>Gaitasun fisiko eta kognitiboen arteko lotura, baita errespetua bezalako baloreei ematen zaien garrantzia.</p> <p>Jarduera Fisiko eta ohitura osasuntsuen sustapena.</p>	<p>Asmo pedagogikoa: Konpetentzia motorra bereganatzea da helburu nagusia. Horretarako egoera motor desberdinak planteatuz ikasleen zenbait ezaugarriren garapena bilatzen da (emozional, kognitibo eta soziala). Ikaslearen garapen integrala bilatu nahi da Gorputz hezkuntzaren bidez.</p> <p>-Oinarrizko jakintza multzoak: Errege dekretuan jakintza multzoak bereizten dira. Hauek modu isolatuan ez lantzeko proposamena egiten da. Horrez gain, egoera motor desberdinak lantzeko gomendioa ematen da errege dekretuan. Beraz, hezkuntza legean oinarrizko jakintza horiek modu bateratuan landu</p>

		<p>ahal izateko baina egoera motorren sailkapen ordenatu bat egiteko AMDen bidezko sailkapen bat egiten da curriculumeko oinarrizko jakintzetan.</p> <p>-Ebaluazio irizpideak: Oinarrizko jakintza multzo bakoitzak bere ebaluazio irizpidea eta lorpen adierazleak dauzka, errege dekretuan adierazten den bezala.</p>
INKOHERENTZIAK	<p>-Ebaluazio irizpideak: Ebaluazio irizpideei dagozkien proportzioak ez datoz bat errege dekretuan eta hezkuntza legean. Jokaera motorren pedagogiara bideratuta, jokaera motorren bidez jasotzen dugun pedagogiara bideratuta eta zehar irakaspenetara bideratuta.</p> <p>-Barne inkoherentzia: Eduki multzoek ez dute aukerarik ematen egoera motorrak beraien ezaugarrien antzekotasunaren arabera sailkatzeko ikaslearen kultura motorra aberastera begira.</p>	<p>-Konpetentzia motorra: Arloak oinarri falta bat izan dezake, konpetentzia motorra gainerako arloen mailan jartzen ez dugunean eta Gorputz Hezkuntza konpetentzia motorraren baitan ulertzen ez dugunean. Konpetentzia espezifikoek agerpenak baina, arazo honi konponbidea ekar daskioke.</p>
HUTSUNEAK	<p>-AMD: Eduki multzoetan ez dago AMD-rik, bestelako eduki multzoak dira hemen ageri direnak.</p>	<p>-Gorputz adierazpena: Atal honi, bere oinarrizko jakintza multzo propioa daukan arren, AMD-ekin lotura logiko bat egin diezaiokegu. Beraz, atalak bere oinarrizko jakintza multzo propioa izatearen edo daukan potentzialitatearen arazoiketa falta bat ageri da.</p>

5.irudia. Elementu sistemikoaren analisiaren laburpen taula. (nik eginda)

Aztertu berri ditugun bi hezkuntza legeen arteko alderaketa egiteko bakoitzak duen koherentzia mailaz hitz egingo dugu. EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak, esan daiteke, koherentzia zainduagoa daukala Heziberri 2020k baino. Izan ere, 157/2022 Errege Dekretuan ageri denarekin koherenteagoa da EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroa, 126/2014 Errege Dekretuan ageri denarekin Heziberri 2020 baino. Hori, asmo pedagogikoaz gain eduki multzo zein ebaluazio irizpideetan islatzen da. Gainera, barne koherentziari dagokionez, Heziberri

2020k irakasgaiaren planifikazioa baldintzatu dezakeen inkoherentzia bat identifikatu dugu azterketa honetan eduki multzoak erreparatuta. EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan beste barne inkoherentzia bat identifikatu dugun arren, hau saihesteko mekanismo bat ere identifikatu dugu. Konpetentzia espezifikoen azalpena, hain zuzen.

7.3. ELEMENTU FUNTZIONALA

Elementu funtzionalaren azterketa bat egiterako orduan, lege bakoitzaren asmo pedagogikoak daukan zentzuaz eta filosofiaz jardutea dagokigu eta ondoren asmo hori gauzatzeko proposatutako mekanismoak (konpetentziak, eduki multzoak, ebaluazio irizpideak, lorpen adierazleak...) asmo pedagogikoarekiko ea koherenteak diren aztertuko dugu.

7.3.1 HEZIBERRI 2020

7.3.1.1. ASMO PEDAGOGIKOA

Hasteko, Heziberri 2020 Hezkuntza Legearen asmo pedagogikoaz arituko gara. Arestian bere asmo pedagogikoa zein den azaldu badugu ere, bere gainetik dauden legeekin alderaketa bat egiteko eta koherentziaz jabetzeko asmoarekin egin dugu. Oraingoan, ordea, legearen asmo pedagogiko aztertzearen helburua, Gorputz Hezkuntzaren xedearen inguruko hausnarketa bat egiteko izango da eta ondoren ea planteatzen dituen mekanismoekin koherentea den ala ez aztertzeko.

Heziberri 2020-n Gorputz Hezkuntzaren atala, konpetentzia motorraren baitan kokatua dago. Hau curriculumeko seigarren konpetentzia bezala adierazten da oinarrizko diziplina barneko konpetentzien barnean. Gorputz hezkuntza da konpetentzia motorra garatzea ahalbidetzen duen irakasgai bakarra. Horretarako, ikasgaiak dauzkan helburuez mintzo da Gorputz Hezkuntzaren ataleko curriculumeko lehenengo zatia.

7.3.1.2 MUGIMENDUA ETA GORPUTZ HEZKUNTZA

Gorputzean eta mugimenduan jartzen du Gorputz Hezkuntzaren oinarrizko ardatza Heziberri 2020-k. Horretarako bi atal bereizten ditu: mugimenduari lotutakoak, gorputz hezkuntza eta mugimenduari lotutakoak, dohain fisiko eta motorretara bideratuak, bertan jarduera fisikorako ohituren sustapena ere sartuko litzateke; eta bestetik, Gorputz hezkuntza praktikatzearen bidez bereganatu daitezkeen baloreak, mugimendua landuz, afektibitateari eta arlo emozionalari loturiko alorra litzateke, hots, gizartean bizitzeko pertsonak heztea litzateke irakasgaiaren helburu honen funtsa.

Honela, bost eduki multzo bereizten dira, eduki multzo hauekin motrizitatearekin gaitasun sozialak, emozionalak, fisikoak eta kognitiboak bereganatzea bilatzen da. Eduki multzo hauetatik bik (bigarrena eta hirugarrena) motrizitatea lantzearekin dute zerikusia, beste bik (hirugarrenak eta laugarrenak) motrizitatearen forma kulturalarekin (jarduera fisikoaren eragina edo emozioen lanketa) eta beste bik (laugarrenak eta bosgarrenak) osasunerako hezkuntza eta balioetan heztearekin dute zerikusia. Lehenengo eduki multzoan, ordea, diziplina arlo guztietan komunak diren edukiak ageri dira.

Motrizitateari lotutako ezaugarriak eta jarduera fisikoa praktikatzearen bitartez bereganatzen diren baloreak modu isolatu batean planteatzeak garapen integralearen kontzeptua baztertzen duela esan dezakegu. Izan ere, garapen integralean oinarritutako Gorputz hezkuntza batean mugimenduaren bidez bereganatzen dira gizartean bizitzeko beharrezkoak diren baloreak eta gaitasunak (taldean jokatzeko jakitea, aurkarienganako errespetua, frustrazioaren kudeaketa eta estrategiarako gaitasuna adibidez). Mugimendua oinarritzat hartuta gizartean bizitzeko pertsonak heztea da garapen integralean oinarritutako gorputz hezkuntzaren funtsa. Beraz, ez dauka zentzurik bi helburu hauek bata bestearengandik aldentuta planteatzeak.

7.3.1.3. KONPETENTZIA MOTORRA

Konpetentzia motorraren baitan sartzen den ikasgai bati buruz ari gara Heziberri 2020 Hezkuntza Legearekin Gorputz hezkuntza ikasgaia aztertzen ari garenean. Bere asmo pedagogikoa zein den ikustera sartu eta bere eduki multzo zein ebaluazio irizpideak irakurtzean inkoherentzia baten aurrean gaudela esan dezakegu.

Konpetentzia motorraz ari garenean, arazo edo egoera motor bati intenzionalitatez eta gaitasun motor, kognitibo emozional eta sozialak martxan jarrita erantzuteari buruz ari gara. Egoera motor isolatu batean gaitasun guzti hauek maila berean martxan jartzea oso zaila da ezinezkoa dela ez esatearren. Hortaz, garrantzitsua da kultura motorraren kontzeptuari aipamena egitea. Izan ere, zenbat eta egoera errealetara hurbiltzen diren egoera motor gehiago eta anitzagoak planteatu, orduan eta kultura motor aberatsagoa izango du ikasleak eta gaitasun desberdinak garatuko ditu. Horrela konpetentzia motor holistikoa bereganatu ahal izango du, gaitasun guztiak maila antzekoan garatzea alegia.

Beraz, Heziberri 2020-n ikasgaiari konpetentzia motorraren aipamenetik heltzen baldin bazaio ere, asmo pedagogikoan arazo motorren ebazpenari ez zaio heltzen nahiz eta gaitasun motor, sozial, emozional eta kognitiboa aipatu. Hau inkoherentzia bat dela esan dezakegu eduki multzoetan ez delako mekanismorik jartzen konpetentzia motorraren garapenerako, ez baita kultura motorra ikasgaiaren ardatz nagusia.

7.3.1.4. EDUKI MULTZOAK

Eduki multzoak erreparatzen baditugu, ikasgaiaren helburua zein den kontuan hartuta inkoherentzia bat ematen dela esan dezakegu, ikasturtea ikasgaiaren helburuen arabera programatzerako orduan. Izan ere, Gorputz hezkuntzaren helburua jokaera motorrak garatzea bada, ikasturtea egoera motorren multzo desberdinen arabera planteatuta egon beharko litzateke. Heziberri 2022-n, ordea egoera motorrak aipatu ordez, egoera motor jakin batekin aldi berean landu daitezkeen eduki blokeak planteatzen dira (jarduera fisikoa eta osasuna, norberaren ezagutza eta kontrola eta kultura motorra adibidez). Honek ikasgaiaren programazioan ordena falta eragin dezake eta helburu pedagogikoen lausotzea.

7.3.2. EAEko HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRRIBORROA

7.3.2.1. HELBURU PEDAGOGIKOA: GARAPEN INTEGRALA

EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak berriz, honakoa du Gorputz Hezkuntzako arloaren helburua: Ekintza motorra ardatz, mugitzen den pertsonaren inplikazio osoa bilatzea. Hau egoera motor desberdinak planteatuz eta honen ondorioz ingurune fisiko, sozial eta kultural anitzekin elkarreaginean jarrita jokaera motor desberdinak martxan jarrita lortzea da helburua. Horrela, egoera motor bakoitzak behar duen erantzun motor, kognitibo sozial eta emozionala emanda, ikasleen konpetentzia motorra garatuko da.

Horrez gain, ikaslearen garapen integrala bilatzen duen arloa da Gorputz Hezkuntza. Arazo motor bakoitzari ikasleak bere nortasunaren alderdi guztiekin erantzutea bilatzen baita, biologiko, kognitibo, sozial, emozional, espresibo eta erabakiorrak diren arloak martxan jartzea da ikasgaiaren helburua. Horrela, lortuko baita ikaslearen inplikazio osoa arazo motorren aurrean, motriztatetik abiatuta.

7.3.2.2. KONPETENTZIA MOTORRA

EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroarekin batera konpetentzia motorren estatus galtze bat iritsi da Gorputz Hezkuntzako arlora. Izan ere, jada ez da funtsezko konpetentzia bezala ageri eta arloa ez da konpetentzia motorren baitan antolatzen.

Konpetentzia motorra, konpetentzia espezifikoetan desglosatua ageri da EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroan. Izan ere egoera motor desberdinak erantzuteko beharrezkoak diren konpetentzia espezifikoak direla adierazten da arloaren intentzioa azaltzen den atalean bertan. Egoera motorrak testuinguru desberdinetan jartzearen aldeko iritzia adierazten du

lege honek, horregatik konpetentzia espezifikoak eskuratzeko zazpi oinarrizko jakintza arlo bereizten dira curriculumean, horietatik bost, akzio motorreko domeinuei dagozkie, bat gorputz adierazpenari eta beste bat zehar irakaspenei.

AMD desberdinak, konpetentzia espezifiko desberdinekin lotzen dira, egoera motor bakoitzak mota bateko edo besteko erantzuna behar baitu. Beraz, egoera motorrak helburutzat jartzen ditugun irakaspenen arabera akzio motorreko domeinu baten baitan edo beste baten baitan planteatzea da Hezkuntza Lege honen gomendioa. Horrela kultura motor aberats bat sustatu eta eguneroko bizitzan aurki ditzakegun arazo motorren aurrean erantzun egokiak emateko heziko dira haurrak.

7.3.2.3 ARLOAREN ANTOLAMENDUA

Planteatzen den jakintza arlo bakoitzean konpetentzia motorrari dagokion konpetentzia espezifiko bat lortzea bada helburu, curriculumean konpetentzia espezifiko bakoitzeko ebaluazio irizpide bat eta berekin zenbait lorpen adierazle definitzen dira. Horrela, ikasle bakoitzak Lehen Hezkuntzako etaparen amaieran, curriculumean definitzen diren ikasleen irteera profileko ezaugarriak lortzea da EAEko Hezkuntza Legearen Helburua, baita Gorputz Hezkuntzaren arloan ere.

Beraz, EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak Gorputz hezkuntzako arloari esleitutako ebaluazio pedagogikoa zein den kontuan hartuta, esan daiteke ongi justifikatuta datorrela horren atzetik datozen konpetentzia espezifikoekin eta hauek lortzeko ezarritako oinarrizko jakintza multzoekin. Izan ere, ikasturte bateko programazioa planteatzerako orduan, oinarrizko jakintzen multzo desberdinak egotea eta hauek lortu nahi diren konpetentzia espezifikoekin lotura zuzena izatea funtsezkoa da arloak daukan helburu gorena lortzeko, kasu honetan konpetentzia motorra.

Gainera, ebaluatzen dena konpetentzia motorra desglosatzen duten konpetentzia espezifikoak izanda, ebaluazioa ere modu justifikatu batean egitea lortzen da, ikasleak eskuratzeko dituen gaitasunak hartzen baitira kontuan eta gaitasun horiek guztiak elkar lotuta daude beste gaitasun orokor baten baitan, konpetentzia motorraren baitan.

7.3.2.4. GORPUTZ ADIERAZPENAREN ISLA

Dena den, gorputz adierazpenaren kasua aipatzekoa dela esan genezake. Gorputz adierazpenak bere konpetentzia espezifikoak izateak, eta horrekin batera bere oinarrizko jakintza multzoa izateak, garrantzia berezi bat ematen dio atal jakin hori. Gorputz adierazpena bestela, kooperaziozko egoera soziomotorren barnean sartu genezake, edo bestela egoera

psikomotorren barnean. Beraz, Heziberri 2020 hezkuntza legean bezala, egoera motor batekin bi kompetentzia espezifiko desberdin edo bi oinarrizko jakintza desberdin landu ditzakegu.

Gorputz adierazpena modu isolatuan lantzea koherentzia baten baitan uler dezagun, esan daiteke arrazoiketa falta bat daukala EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak. Jakintza arlo bezala aitortza bat ematen dion arren, asmo pedagogikoaren justifikazioan ez dio aipamenik egiten eta horrela, jakintza arlo isolatu hori justifikatu gabe gelditzen dela esan dezakegu.

8.ONDORIOAK.

Behin Heziberri 2020 eta EAeko Hezkuntza Legearen zirriborroaren alderaketa bat eginda, bi hezkuntza legeen zenbait ezaugarri, aukera eta oztopo aztertu ditugu. Hau guztia, hasieran ikerketa hau egitera bultzatu gaituzten helburuekin eta helburu horien baitan egin ditugun hipotesiekin alderatu eta balorazio bat egitea dagokigu orain. Orduan, hipotesiz hipotesi ateratako ondorioak adierazten hasiko gara.

Esan beharra dago lanari jarritako helburuak bete direla. Hasteko, bi hezkuntza legeen asmo pedagogikoak zeintzuk diren aztertu eta horien inguruko analisi bat egin dugu. Ondoren, bi legeen alderaketa egin dugu lanaren atal nagusian, Von Savigny-ren metodoa jarraituz. Bukatzeko, azterketa horretatik EAeko Hezkuntza Legearen Zirriborroak dakartzan aukerak zeintzuk diren atera ahal izan dugu.

1.HIPOTESIA: Lege zaharretik lege berrira helburu pedagogikoan aldaketa nabarmenik egon ez arren, ikasgaiaren antolaketan berrikuntzak daude batetik bestera helburua lortzeko erraztasunak ekarriko dituztenak.

Hasteko, hipotesi hau baieztatu dugula esatea dagokigu. Bi legeen helburu pedagogikoa antzekoa dela esaten dugunean, ados gaude hasieran egindako hipotesi horrekin. Izan ere, Gorputz Hezkuntzaren historian lehen aldiz egiten zaio aipamena konpetentzia motorrari LOMCE legean eta LOMLOE legeak ez du kontzeptu hau alde batera uzten.

Konpetentzia motorrari buruz bi legeak, antzeko kontzeptu baten inguruan mintzo dira. Orohar, konpetentzia motorraz ari direnean bi hezkuntza lege hauek motrizitatea inplikatzen duen egoera baten aurrean (egoera motor baten aurrean) modu eraginkor eta intentzionatu batean jarduteko gaitasunari egiten die erreferentzia. Horretarako, gaitasun motor, kognitibo, sozial eta emozionalei garrantzia ematen zaie Gorputz Hezkuntzako ikasgaiari. Azken hau argi ikus dezakegu Heziberri 2020-n alde batetik harremanei eta emozioei ematen zaien garrantzian eta bestetik, haurren garapen kognitiboaren eta egoera motor errealetan haurren garapen kognitiboak duen garrantziaren inguruan egiten diren aipamenetan. Horrez gain, EAeko Hezkuntza Legearen zirriborroan garapen integralak jokaera motorretan daukan eragina aipatzen denean, haurren gaitasun fisikoetatik haragoko beste gaitasun batzuen garrantzia ere nabarmentzen da. Horrez gain, bi hezkuntza legeetan aipatzen da helburu gisa ikasleen jarduerari fisiko eta kirolerako ohitura osasuntsuen sustapena. Izan ere, lan honetan zehar aipatu bezala, ikasle asko eta askoren jarduerari fisikorako asteko momentu bakarra izaten dira Gorputz Hezkuntzako saioak.

Bertatik ateratzen dudan ondorioetako bat da arloaren helburuetako bat haurraren kirol zein jarduera fisikorako ohitura osasuntsuak sustatzea izanda, irakaslearen esku geratzen dela planteatzen dituen egoera motorren kanpo logikaren arabera aukeraketa. Hau da, hezkuntza curriculumak barne logikaren arabera sailkapen bat eskaintzen badio ere, honek praktikara eramaten dituen egoera motorren aukeraketan kanpo logikak zeresana izango du desberdina delako ikastetxe bateko testuinguruaren eta ikasleen beraien zaletasunen arabera jolas bat edo beste edo kirol bat edo beste, edo egoera motor bat edo bestearen hautaketa egitea haurren gozamina bilatzera begira eta hauen ohitura osasuntsuen sustapenari garrantzia berezia emanda.

Helburua lortzeko mekanismoak eskaintze aldera, AMDen presentziak EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroa aberastu egiten du. AMDekin egoera motor anitzak modu ordenatu batean antolatzeko aukera dago haurren gaitasun desberdinak martxan jarri eta jokaera motorretan oinarritutako pedagogia lortzeko.

Beraz, ikusi dugu lege zaharretik lege berrira urrats bat eman dela ikasgaiaren edo arloaren helburu pedagogiko antzekoa betetzeko mekanismo desberdinak jartzera, hein handi batean. Konpetentzia motorraren garapena gauzagarriagoa egiteko konpetentzia motorren sailkapen bat egiten du, konpetentzia espezifikokoak direnak curriculumean.

2.HIPOTESIA: Gorputz Hezkuntzako ikasgaiko urte osoko plangintza zein programazioak egiteko tresna erabilgarriak dira hezkuntza curriculumak.

Ondorioak ateratzera begira, behin ikerketa aurrera eramanda ikusi dugu hezkuntza lege baten baitan idatzitako curriculumak balio dezakeela ikasturtearen programaziorako, are gehiago, ikasturteko programazio bateratu eta logiko bat egiteko curriculum koherente eta egoki bat beharrezkoa da.

Zentzu horretan argibideak ematen dituzte bai Heziberri 2020-k baita EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak ere. Izan ere, ikasgaiaren edo arloaren xedea zein den zehaztea beharrezkoa da programazio bat aurrera eramateko eta biek ongi justifikatua dakarte zein den Gorputz hezkuntzaren helburu pedagogikoa. Horrez gain, biek jasotzen dituzte helburua betetzeko mekanismoak. Aurreko paragrafoetan aipatu bezala baina, batak besteak baino antolatzeko modu egokiagoa proposatzen du printzipioz. Lanean zehar aipatu gisan, egoera motor anitzak planteatu behar badira konpetentzia motorraren garapen bat lortzeko, oinarritzko jakintzak honen arabera antolatu beharko lirateke eta hori egiten du EAEko Hezkuntza Legearen Zirriborroak.

Heziberri 2020-ri dagokionez, urteko programazio bat egin behar badugu Gorputz Hezkuntzaren helburu pedagogikoa kontuan hartuz, eduki multzoak zeintzuk diren erreparatuta programazioa ez da horren ordenatua izango. Izan ere, ikasle batek jokaera motorrak bereganatu ditzan egoera motor desberdinei aurre egin beharko die. Horretarako, garrantzitsua da egoera motorrak sailkatzeko mekanismo bat izatea programazioko eduki multzoek eta oinarrizko jakintzek eta lantzen den eduki bakoitza ezaugarri jakin batzuk dituen egoera motorren arabera antolatua egotea komenigarria da. Heziberri 2020-ko eduki multzoetan ez da egoera motorrak modu ordenatu batean sailkatzea ahalbidetu dezakeen mekanismorik proposatzen.

3.HIPOTESIA: LOMCE eta Heziberri 2020 eta LOMLOE eta EAeko Hezkuntza Legearen zirriborroaren artean antzekotasun handiak daude.

Von Savigny-ren metodoaren elementu sistemikoaren analisia erreparatuz, lege bat sistema juridiko baten baitan kokatu behar da, gainerako legeekin koherentzia desberdinak mantenduz eta hierarkia juridikoan dauden gainerako legeekin bat eginez. Hori horrela, zentzuzkoa da LOMCE eta Heziberri 2020-ren artean eta aldi berean LOMLOE eta EAeko Hezkuntza Legearen zirriborroaren artean antzekotasunak izatea.

Lanean zehar ikusi dugun bezala, bi hezkuntza legek bat egiten dute Errege Dekretuetan aipatzen diren Gorputz Hezkuntzako ikasgaien helburu pedagogikoekin. Azterketa aurrera joan ahala, inkoherentzia desberdinak nahiz hutsuneak ikusi ditugun arren (AMDen aipamenean edo ebaluazio irizpideen proportzioan esate baterako), atera dezakegun ondorioetako bat da hezkuntza lege bakoitzak errespetatu duela gaineratik zeukan Errege Dekretua eta beraien artean antzekotasun nabarmenak daudela.

Horrez gain, bi hezkuntza legeen artean ere badaude antzekotasunak. bHoriek, helburu pedagogikoetan jokaera motorren garrantzian edo ohitura osasuntsuen sustapenean identifikatu ditzakegu. Bi hezkuntza legek dute helburu jokaera motorra sustatzea, eta Gorputz Hezkuntza gorputzaren mugimendua lantzetik harago doan zerbait dela ageri da. Mugimenduaz gain, bestelako gaitasunen bereganatzea lortu nahi da ikasleengan eta honen ondorioz jarduera fisikoak osasunean daukan eraginaren inguruan hausnartzera bultzatu nahi ditu ikasleak. Lege bakoitzari dagokion errege dekretuak ere helburu hauek ditu Gorputz Hezkuntzari dagokionez.

Desberdintasunak berriz, lege bakoitzak daukan asmo pedagogikoa gauzatu ahal izateko proposatzen diren mekanismoak (eduki multzoak edo oinarrizko jakintzak) erreparatuta identifikatu ditzakegu. Lege batetik bestera irakaspenak atera direla esan daiteke aldaketa

nabarmen bat dagoelako ikasturtearen programazio eta plangintzak egiterako orduan. AMDen txertatzeak erraztu egin dezake ikasturte zein zikloko programazioa eta eduki desberdinak modu ordenatu batean lantzeko aukera dakar helburua jokaera motorrak eskuratzea dela jakinda. Beraz, esan dezakegu Gorputz Hezkuntzaren arlorako hobekuntzak ekar ditzakeela EAEko Hezkuntza Legearen zirriborroak.

9.MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Lana egin ondoren hausnarketa pertsonal bat egin ahal izan dut eta sortutakoaren inguruan eta lanerako erabili dudako prozesuaren inguruan zenbait hobetzeko proposamen atera ditut eta baita bidean zehar izandako mugak identifikatu ere.

Von Savigny-ren metodologia, izaera zientifikoduna eta homologatua den metodologia bat bada ere, esan beharra daukat ikerketa egin ondoren egindako alderaketan nire iritzi pertsonalak nolabaiteko pisua izan duela. Metodologia homologatua hautatu izanak, hein batean objetibotasuna eman dio nire ikerketari baina ezin da saihestu horrelako ikerketa batean iritzi pertsonalaren presentzia. Beraz, ikerketa honek duen mugetako bat hori da, egilearen ikuspuntuak pisua har dezakeela Von Savigny-ren metodologia erabilita egindako azterketatik ondorioak ateratzeko orduan, kasu honetan bi legeen konparaketan.

Bestalde, agian goizegi dela uste dut EAEko Hezkuntza legearen zirriborroaren inguruko analisi sakon eta garatu bat egiteko. Izan ere indarrean sartu berri den lege batek bide oso laburra egin du oraindik praktikan. Hezkuntza lege honek ekar ditzakeen aukera eta oztopoen inguruko analisi bat egin dut eta horrez gain, urte batzuetan zehar martxan egon den beste hezkuntza lege batekin alderatu dut. Nahiz eta gaur-gaurkoz Gorputz Hezkuntzak lege berriarekin nondik joko duen ikus dezakegun, oraindik muga bat da praktikan esperientzia gutxi eduki izana; batez ere, ekar ditzakeen oztopoen inguruan jarduteko.

Zentzu berean, azterketa juridiko bat baino ez dut egin, ez dut eskuhartzerik proposatu ez eta aurrera eramanez ere. Horrek bi legeek praktikan daukaten eraginaz aztertzeke zailtasunak ekarri dizkit eta hobetzeko proposamena litzateke, lan juridikoa egitearekin batera ateratako ondorioak landa lan bat edo lan praktikoa bat egin ondoren ateratako ondorioekin konparatzea.

Dena den, lan honi jarritako helburua bete dudala uste dut. Gorputz Hezkuntzako ikasgaiak izandako bilakaeraren inguruko analisi batekin batera, gaur egun ikasgaiarekin bilatu nahi dena edo beharko litzatekeena aztertu dut, baita horretarako jarri beharko liratekeen mekanismoen inguruan aritu naiz. Ondoren metodologia homologatu baten baitan gaur egun indarrean dauden bi legeren arteko analisia egin du; ondoren, bien arteko konparaketa bat egiteko. Prozesu horretan zenbait gako atera ditudala uste dut, curriculumaren garrantziaren inguruan eta baita hauek izan beharko litzaketan barne koherentzien inguruan ere.

10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a, 141 alea, 268 orrialdea.

Alonso, D. M., Fernández-Río, J., Giménez, A. M., & Sabori, J. A. P. (2015). Análisis de los currículos autonómicos LOMCE de Educación Física en Educación Primaria. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (28), 15-20.

Eusko jaurlaritzaren (2022). *Curriculum dekretua: Heziketa Fisikoa [Zirriborroa]*

Grau, E. (2007). *Interpretación y aplicación del Derecho*. Dykinson.

Igartua Salaverriá, J. (1994). *Teoría analítica del Derecho La interpretación de la Ley*. Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública.

Julián Clemente, J.A., Abarca-Sos, A., Zaragoza, J. y Aibar Solana A. (2016). Análisis crítico de la propuesta del currículum básico de la LOMCE para la asignatura de Educación Física. Acciones derivadas en la Comunidad Autónoma de Aragón y propuesta de futuro. *Universidad de Zaragoza*.

Larraz, A. (2002). *Diseños curriculares de la comunidad autónoma de Aragón - Educación Primaria: Educación Física*.

Larraz, A. (2008). Valores y dominios de acción motriz en la programación de educación física para la educación primaria. *Seminario Internacional de Praxiología Motriz*, 1-10.

Larraz, A. (2014). Diseño curricular para la Educación Física en primaria y la praxiología motriz. *I Congreso Internacional y XV Simposio de Praxiología Motriz*, 1-8.

Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa. B.O.E. n.187 de 6 de agosto. LGE.

Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, Publicado en B.O.E. n. 238, de 4 de octubre. LOGSE.

Ley Orgánica 157/2022, de 1 de marzo, por el que se establecen la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Primaria. Publicado en B.O.E. n.52, de 2 de marzo. LOMLOE

Ley Orgánica 2/2006, de 3/05, de Educación. B.O.E. n.106, de 4 mayo. LOE.

Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación . Publicado en B.O.E. n.159 de 4 de julio. LODE.

Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa. Publicado en B.O.E. n.295, de 10 diciembre. LOMCE.

- López de Sosoaga López de Robles, A. (2010). Análisis praxiológico de la educación física de primaria (6-12 años) en el País Vasco: un estudio de casos. *Revista acción motriz*, 5, 20-32.
- López de Sosoaga López de Robles, A. (2013). El método interpretativo de Von Savigny en el análisis de la legislación educativa: un estudio de casos sobre el currículo de Primaria. *Revista de educación y derecho*, 9, 1-28.
- Martín Flórez, J., Romero-Martín, M.R. y Chivite Izco, M. (2015). La educación física en el sistema educativo español. *Revista española de educación física y deportes*, 411, 35-51.
- Molina, P., Valenciano Valcárcel, J., Ubeda-Colomer J. (2016). El diseño curricular de la Educación Física en España: Una revisión crítica desde la LOGSE a la LOMCE. *CDC*, 32, 97-106.
- Muñoz Díaz, J.C. (2022). La Educación Física en la LOMLOE. *EmásF, Revista Digital de Educación Física*, 78, 74-95.
- Parlebas, P. (2008). *Juegos, deporte y sociedades. Léxico de praxeología motriz* (Vol. 36). Editorial Paidotribo.
- Parlebas, P. (2009). La acción motriz: punta de lanza de la Educación Física. *Revista de Educación Física: Renovar La Teoría y Práctica*, 113, 5-12.
- Ruiz Pérez, L.M. (2014). De qué hablamos cuando hablamos de la competencia motriz. *Revista acción motriz*, 12(1), 37-47.
- Von Savigny, F.K. (1994). *Metodología Jurídica*. Buenos Aires: Depalma.